

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



## **‘BIZIGARBI’ BERRIA ALTZAKO HARRIA PARKEAREN ONDOAN**

Hiriko Mantentze Lanen atalak *bizigarbi* berri bat jarri du hirian, Harria parkeko komun publikoen ondoan, Altza auzoan.

Miguel Angel Díez zinegotziak adierazi du hiriko hainbat tokitan jarri nahi dituztela horrelako instalazioak. Bizikleten erabiltzaileek asko estimatzen dute zerbitzu hori, han-hemen ibili ondoren bizikleta garbitzeko aukera baitute horrela. Honako hau jada hiriak duen laugarren *bizigarbia* da, baina ez da azkena izango, laster beste hainbat tokitan jarriko baitituzte halakoak.

Lehenengo *bizigarbia* Arrobitxulo parkean jarri zen. Bigarrena, sinpleagoa, Otxoki pasealekutik Ametzagaña parkerako sartzeko bideetako batean. Geroago, hirugarren *bizigarbia* Txominen jarri zen, ibai-parkeko komunen ondoan, eta, orain, laugarrena, Harrian, Altzan.

# Prensa oharra

## Nota de prensa



Instalazio horiek jartzeko, komunen ondoko ur-hartuneak eta saneamendusareak aprobetxatzen dira. Gainerako bizigarbiek bezala, honako honek ere elementu hauek ditu: presio baxuko ur-zurrusta, garbitzean bizikletari kalterik ez eragiteko; eskuilak, eta barrak, bizikleta garbitu bitartean hor jarrita edukitzeko.